

# 2016-2020 GIZARTERATZEKO PLANA



**elkar-EKIN**

Gipuzkoako Gizarteratzea  
Inclusión Social Gipuzkoa

**2016-2017 ALDIKO LABURPENA**

**2017-2018 ALDIKO EKINTZA PLANA**

**Gipuzkoako  
Foru Aldundia**  
Gizarte Politikako  
Departamentua



Diputación Foral  
de Gipuzkoa  
Departamento de  
Políticas Sociales



**ORAIN  
GIPUZKOA**



## AURKIBIDEA

0. Aurkezpena
1. Gobernantza eredua. Metodologia.
2. 2016-2017 aldiko laburpena
3. 2017-2018 aldiko ekintza plana.

### 0. Aurkezpena

2016-2020 aldiko Elkar-EKIN plana Gipuzkoako agenda politikoan gizarte inklusioa txertatzeko erabakia dela eta sortu zen. Horrela, 2016ko apirilaren 12ko Diputatuen kontseiluan Elkar-EKIN planeko helburuak eta jarduketa ildoak adostu eta onartu ziren. Horiek guztiak oinarria izango dira plan hau behin betiko lantzeko gizarte eta udal erakundeekin egin beharreko kontraste lan eta ekarpenen bilketarako. Hauek dira helburu eta jarduketa ildoak:

1. Gizarte bazterketa egoeran dauden pertsonentzako arreta hobetzea.
2. Aukera sorkuntza sustatzea gizarte bazterketako arriskuan eta egoeran dauden pertsonentzat.
3. Kohesio eta aktibazio inklusiborako proiektuak sustatzea eta bultzatzea.
4. Babeserako beste gizarte sistema batzuekin koordinazioa indartzea, bereziki, alor soziosanitarioarekin.
5. Herritarrekin Gipuzkoako gizarte inklusioaren inguruko komunikazio eta sentsibilizazio lana egitea

Deskribatutako helburuekin lotuta dauden 6 jarduketa ildoak:

1. Gizarte inklusioarekin lotutako gizarte zerbitzu eta prestazioak garatzea.
2. Enplegurako eta gizarte inklusiorako aukera sorkuntza sustatzea gizarte bazterketako arriskuan eta egoeran dauden pertsonentzat.
3. Lankidetzaren indartzea tokiko eta gizarte erakundeekin gizarte inklusio eta integrazioarako prozesuen kudeaketan.

4. Ikerkuntza eta berrikuntza sustatzea jarraibide egokiei dagokienez.
5. Zeharkako prozesuak garatzea bazterketari helderako orduan zerbitzu publikoekin lankidetzan.
6. Komunikazio plan bat diseinatu eta garatzea gizarte inklusioaren alderdiei buruzko sentsibilizaziora orientatua.

Dokumentu honetan lehen urte honetan egindako lana laburbildu dugu. Helburua da zer egin den eta nola egin den adieraztea, eta, hain justu, nola egin den da oinarrizko elementu bereizlea. Halaber, 2017-2018 ekitaldiko ekintzarik esanguratsuenak nabarmentzen dira. Ekintza horiek lehen urte honetan hasitako interakzio lanaren emaitza dira.

### **Gobernantza eredua. Metodologia.**

Elkar-EKIN Planaren gobernantza eredua oinarrizko hiru printzipio kontuan izanda eraiki zen hasieratik: ezagutza ko-sortzea, gorantz doan prozesua eta errespetua izatea partaidetzari eta parte hartzaile guztien ekarpenei. Printzipio horiek enfasia jartzen dute prozesuka lan egiteko lan egiteko moduan, ezagutzaren ko-eraikuntzak duen garrantzia nabarmenduz eta, laburbilduz, sistema osatzen duten agente guztien artean politika publikoak definitzeak duen garrantzia nabarmenduz.

Paradigma hori, berez, ikuspuntu aldaketa bat da eta ikuspuntu horrek administrazio publikoaren ohiko ikuspuntu bertikala iraultzen du ikuspuntu horizontal bihurtzeko. Hala, ikuspuntu horretan, bakoitzak bere errealitatetik behar den ezagutza ematen du erronketarako sistemak eskatzen duen erantzun bateratu bat eraikitzeko.

lido horretan, metodologia hau ezarri dugun lehenengo urte honetan, planaren eta gobernantza ereduaren ekarpen handia izan dira lan egiteko eredu hau erabiltzea eta elkarrizketa zein interakzio guneak sortu eta finkatzea; izan ere, sistemako agenteak aurrez adierazitakoarekiko oso bestelako posizioan ezartzen ditu. Horizontaltasun erlazioak esan nahi du gaiak batera planteatzen direla, batera lantzen direla eta batera lehenesten direla.

Horrela bada, errealitate horren konfigurazioak, konfiantzazko guneen sorkuntzak, horrek dakarren prozesu lanak eta 'egoki entzun' eredutik 'elkarri entzun eta lan egin' eredura igarotzeak pauso kualitatibo garrantzitsu bat ekarri dute sistemaren

ikuspuntutik. Sistema horrek, halaber, aurrerapenak ekarri ditu foru aldundi, udal eta hirugarren sektorearen artean aldizka landu diren gaietan.

### **Erabilitako metodologia**

Lehen urte honetan zehar, bi lan prozesu jarri dira martxan, biak ko-sorkuntzaren eta iritzi zein ekarpen guztiekiko errespetuaren metodologiarekin. Metodologia hau sarean lan egiteko prozesuen arabera diseinu batean zehaztu da, Ikerkuntza-Ekintza-Partaidetzan oinarrituta. Lan saio partekatuak egin dira, gaiak birplanteatu dira adierazitako eskaeren arabera eta formulazioan adierazitako hirugarren ekintzarako oinarriak ezarri dira: ikerkuntza eta prozesuaren ondorengo berrelikadura.

Prozesu honen segimendua talde motor edo talde txiki bat egin du. Gizarte Politikako Departamentuko politikari eta teknikariek eta Deustuko Unibertsitateko ikertzaileek osatu dute talde hori.

Lehenengo lan prozesua, 2016an martxan jarri zena, bi maila instituzionalen artean gauzatu da: udalen maila (lehen maila) eta foru maila (bigarren maila). Bigarren prozesua foru erakundeak eta lurraldeko hirugarren sektoreak jarri dute martxan. Bi prozesuek aurrez aipatutako printzipioak aplikatu dituzte eta bi kasuetan gobernantza eredu berria ari da finkatzen prozesu metodologiaren bidez eta konfiantza aplikatua sortuta.

## **1. 2016-2017 aldiko laburpena**

2016-2017 ikasturtean zehar, hainbat ekintza egin dira Elkar EKIN Planaren baitan. Ekintza horiek SIISek egindako analisisian eta diagnostikoan detektatutakoak dira; horrez gain, gizarte eta udal erakundeek egin dituzten ekarpenen ondorioz sortutako beste ekintza batzuk txertatu dira. Jarraian, **2016-2017 planean jasotako ekintzarik nabarmenen laburpena dago**

## 1. HELBURUA. Gizarte bazterketa egoeran dauden pertsonentzako arreta hobetzea

Gizarte inklusiorako zerbitzuen arduraren sakontzeko beharra eta esku hartzeen ikuspuntua arreta ematen zaion pertsonan zentratzeko beharra dela eta, proiektua garatu den lehen urte honetan zehar, zerbitzu eta prestazio berriak jarri dira martxan eta gaur egungoak gizarte inklusioaren arloko beharretara egokitu dira. Jarduketa ildo honen baitan gauzatu diren ekintzen gain lehenetsi den oinarria izan da hori.

### 1. Bazterketa baloratu eta orientatzeko zerbitzua martxan jartzea.

Indarrean dagoen araudiak ezartzen duen eran, gizarte bazterketa baloratu eta orientatzeko irizpideak batu behar diren ondorioz, gizarte bazterketa baloratu eta orientatzeko zerbitzua martxan jarri behar izan da.

Prozesu hori martxan jartzeko, udaletako gizarte zerbitzuetako kopartaidetza izan dugu, udal erakunde, gizarte erakunde eta departamentuaren arteko partaidetza handiagoa sustatzeko helburuarekin. Baloratzeko prozesua udaletako gizarte zerbitzuetan hasten da eta, horregatik, hobekuntza arloak ebaluatu eta proposatzeko aurretiazko lankidetzaren lan bat egin da.

Martxotik aurrera 116 balorazio eskaera egin dira gizarte bazterketa baloratzeko tresna teknikoaren erabileran oinarrituta.

Eskaera horietatik % 1,96 gizarte bazterketa larri gisa zehaztu dira, % 23,56 gizarte bazterketa neurritsu gisa, % 43,14 gizarte bazterketa arin gisa eta % 11,76 gizarte bazterketako arrisku egoera gisa.

### 2. Lankidetzaren aktiboa tokiko erakunde, gizarte erakunde eta Gizarte Politikako Departamentuaren artean.

Erakundeekin koordinatuta lan egiten jarraitzeko asmoarekin, horiekin ere era aktiboan eta kolaboratiboan lan egin dugu arreta sarea koordinatzen. Horretarako, bi lantalde kolaboratibo jarri dira martxan: lehena, Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzu eta udaletako lehen arreta mailakoen artean eta, bigarrena, hirugarren sektoreko erakundeekin. Lehen taldean gizarte zerbitzuen gaur egun antolamenduari buruz lan egin da eta

kasuak kudeatzeko, funtzioak mugatzeko zailtasunak izan dira une batzuetan; ondorioz, erakunde bakoitzaren funtzioei eta erakundearen funtzioei buruzko definizio egokiago bat lortu da, baita elkarlanerako oinarriak jarri ere.

Hirugarren sektorearekin osatutako lantaldeari dagokionez, egingo diren hurrengo saioetan landu beharreko arlo nagusiak detektatzeko eta landu beharreko alderdiak identifikatzeko lan egin da.

**3. Mekanismoak garatzea zerbitzuak eskaintzeko taldeak era daitezela sustatu eta bultzatzeko hurbiltasun printzipioaren eta baliabideen erabilera efizientearen arabera.**

Lan kolaboratibo eta koordinatuaren filosofiari jarraikiz, filosofia hau udalen arlora zabaldu nahi izan da eta, horregatik, helburu horretarako lan egin da eta udal erakundeei “Gipuzkoako Lurralde Historikoko lehen mailako arretaren gizarte zerbitzuak kudeatzeko udalez gaindiko ereduari buruzko txosten juridikoa” izeneko txostena eman zaie. Dokumentu horren xedea da baliabideen efizientzia handiagoa lortzeko erakundeei erraztea taldekatze aukeren bilaketa.

Prestazio eta zerbitzuen onuradunekin lan egiten duten erakundeekin gauzatutako jarduketaz gain, orobat, zerbitzu eta prestazio horiek garatzeko ekintza zehatzak egin dira, pertsonen beharrekiko gertuagoko arreta eta egokiagoa lortzeko.

**4. Egoitza arretarako unitate berria, bazterketa egoeran dauden gaixotasun mentaldun pertsoneri arreta ematen espezializatua.**

Egoitza unitate hau martxan jarrita, bazterketa egoeran dauden eta, aldi berean, gaixotasun mentalaren patologia bat duten pertsoneri benetan behar duten arreta ematen zaie. Gainera, arreta ematen zaien pertsonen bizi kalitateari buruz eta pertsona horien gogobetetze mailari buruz lortzen ari diren emaitzen lehen ebaluazioa oso positiboa da.

## **5. Hábitat proiektua, “Housing First” metodologian oinarritua**

Orain arte behar bezalako erantzuna eman ez zaien beharretarako baliabideak gehitzeko ildo horretan, proba modura proiektu hau jarri da martxan, RAIS EUSKADI Fundazioarekin egindako hitzarmenaren eta lehen fase honetan Donostiako Udalaren lankidetzaren bidez. Hori dela eta, egoitza bazterketa egoeran dauden 5 pertsonentzako etxebizitzak eskainiko dituzte. Asmoa da etxebizitza bera oinarri gisa erabiliz, pertsona horiei aukera eremu bat eskaintzea ingurunearekiko erlazioa berreskuratzeko, eta, horrela, bazterketa egoeratik atera ahal izateko laguntza sare sozial egoki bat eraikiko dute.

## **6. Egoitzetako eta eguneko zentroetako plaza berriak ireki dira.**

50 plaza berri sortu dira eta 5 plaza lekualdatu dira lurraldeko oreka hobetzeko.

Sarea handitzeko helburuarekin (gaur egun dauden plazei eta horien modalitateari dagokionez sarea dibertsifikatu egin da) eta lurraldeari estaldura handiagoa emateko helburuarekin, Sarea Fundazioak Arrasaten martxan jarritako eguneko zentroan plaza berriak ezarri dira. Horren guztiaren helburua da arreta ematen zaien pertsonen ingurune bat eskaintzea bertan lan egin dezaten eta gaitasun sozialak, gizarteko zein lan arloko gaitasunak gara ditzaten, eta pertsona horiek ahalduntzeko gune okupazional bat sor dadin. Caritasekin ere lan egin da Aterpe Gaueko Harrera Zentroko 8 plaza egokitzeko, exigentzia baxuko baliabide gisa.

Bestalde, emantzipazio programei lotutako egoitza plazak zabaldu eta dibertsifikatu egin dira, lurraldearen oreka handiagoa lortzeko helburuarekin; horrela, lurraldeko gazteei emantzipazio prozesua erraztuko zaie, haien errotze lekuetara hurbilduta.

Era berean, zentro okupazionalen plazak gehitu dira. Plaza igoera horretan, kontuan izan dugu lurraldetasunaren araberako eta garatzen den jardueraren araberako dibersifikazioa.



## 2. HELBURUA. Aukera sorkuntza sustatzea gizarte bazterketako arriskuan eta egoeran dauden pertsonentzat

Lan ildo hau gizarteratze zein laneratzera bideratutako baliabide, zerbitzu eta programen eskaintza dibertsifikatu behar zelako sortu zen. Ondorengo gai esanguratsuak nabarmentzen ditugu: gizarte bazterketa egoeran dauden pertsonentzat zuzenean enplegua sortzeko beharra, baita zentro okupazionalerako sarbidea eta gizarte zein hezkuntza arloko esku hartze programen garapena sustatzeko beharra ere.

Gizarteratze zein laneratzeari laguntzeko eta prestakuntzan ekintza positiboak garatzeko eta enplegarritasuna sustatzeko programak, alde batetik, indartu egin dira. Horrela, proiektu berrien onuradunak 1.268 izan dira eta, bestetik, “*Gizarte Politikako Departamentuaren enplegarritasun plana*” izenekoan bateratu dira eta udaletako gizarte zerbitzuei ezagutzera eman zaie. Hori dela eta, parte hartzaileak 3.551 izan dira.

Hona hemen proiektu nabarmenenak:

### 7. Sendotu Aldiberean proiektua

Proiektu hau martxan jarrita (helburua da lan merkatutik aldenduen dauden pertsonen lan merkatuan sartzea eragozten dieten oztopoak kentzea) berdintasuna, enplegarritasuna eta gizarte inklusioa sustatzeko lan egin daiteke.

404 onuradun.

### 8. "Acceder" proiektua

Secretariado Gitano Fundazioak gauzatzen duen proiektu honen bidez, gizarte zein lan arloko prestakuntza eta laguntza indartu da, baita ijito etniako pertsonetikiko enpresen eta gizarte agenteen bitartekaritza ere. Y

242 onuradun.

## **9. Landuz proiektu pilotua**

Proiektu pilotu honen helburua da, erantzutea Gizarte Politikako Departamentuak detektatutako behar bati, hau da, bereziki, jarduera produktiboarekin zerikusia duten eginkizunekin erlazionatutako enplegu gaitasuna eta trebakuntza lantzeko beharrari erantzutea, lanean hasi aurreko testuinguruan sarbiderako aukera bat behar duten pertsonentzat. Proiektu hau martxan jartzeko, lankidetzaren hitzarmenak sinatu dira Sutargi eta Gureak Inklusio Fundazioarekin. Proiektua erakunde hauek eskaini dituzten tailerretan ari da garatzen.

34 onuradun.

## **10. Lankidetzaren beste gizarte agente batzuekin enplegua sortzeko**

Proiektu honen bidez, zerbitzuko inklusioaren kudeaketa aktiboko programen eta gizarte zein lan arloko inklusio programen erakunde laguntzaileak ostalaritza elkartearekin koordinatu ziren. Zehazki, 70 pertsona prestaturen curriculumak eman zitzaizkien alor horretan lan egiteko.

Ildo horretan, enplegu poltsaren kudeatzailea eta zerbitzuko teknikaria harremanetan daude sor daitekeen edozein lan eskaintzarako eta enplegarritasun programek garatu beharreko prestakuntza planifikatzeko.

## **3. HELBURUA. Kohesio eta aktibazio proiektuak sustatzea eta bultzatzea**

Kohesio eta aktibazio proiektuak susta daitezela lortzeko helburuarekin, bereziki aisialdi, kultura eta gizatasuneko partaidetzan eta komunitate partaidetzan oinarritutako proiektuen garapenean eragin nahi izan da.

## **11. Laguntzak gizarte ekimenari jarduketan ildo hauetan biltzen diren proiektuetarako:**

- ✓ Esku hartze sozialaren programak,

- ✓ Prebentzio eta sentsibilizazio programak,
- ✓ Ikerkuntza eta berrikuntza proiektuak.

Gorantz doazen gizarte beharrei eta gizarte arreta modu berriei erantzun nahi izateak bereizten dituen proiektuak dira; horrela, gizarte bazterketa egoeran dauden kolektibo ugari eragin daiteke.

220.508 € 29 proiektutan.

## **12. Inklusio prozesu indibidualei lotutako laguntza ekonomiko bat diseinatu eta onartzea**

Gizarte inklusioaren prozesu indibidualak indartzera bideratutako laguntza ekonomikoak diseinatu eta onartu dira, Arreta Pertsonalizatuaren Planaren esparruan beti. Horretarako martxan jarri da laguntza ekonomikoen dekretuaren eguneratzea instrukzio berri baten bidez. Gizarteratze prozesuan dauden 23-64 urte bitarteko pertsonen laguntzarako sarbidea zabaltzen die eta laguntza mantendu eta/edo emateko bazterketa baloratu behar dela ezartzen du instrukzio horrek.

128 onuradun 561.281eurorekin.

## **13. Prestakuntza eta ikerkuntza programak sustatzea.**

Kohesioari eta aktibazio inklusiboari dagokionez, jardunbide egokien inguruko ikerkuntza eta berrikuntza arloan hauek nabarmentzen dira:

- ✓ “Berrikuntza gizarte inklusioan eta gizarte bazterketan dauden pertsonen arretan” EHUko udako ikastaroa. 180 pertsona bertaratu dira ikastaro horretara eta hainbat proposamen bai nazionalak bai internazionalak ezagutu ahal izan dituzte gizarte bazterketaren egoerak lantzeko.
- ✓ EHUrekin lankidetzan tesi bat egin da gai honi buruz: “Gizarte bazterketa eta horrek nahasmendu mentalekin duen erlazioa”.
- ✓ Habitat proiektua. “Housing First” ereduan oinarritutako metodologia. Proiektu horri esker programa horren onurak jaso ditzaketen pertsonen bilakaeraren benetako konparazio analisirako esperimendua egin daiteke

- ✓ Bazterketa egoeran edo arriskuan dauden 18-23 urte bitarteko gazteen azterlan sozio-demografikoa eta psikosoziala, EHUrekin batera gauzatua.

#### 4. HELBURUA Babeserako beste gizarte sistema batzuekin koordinazioa indartzea, bereziki, alor sozio sanitarioarekin

Elkar EKIN plan hau garatuta, gizarte inklusioaren beharren inguruko norabide bakarreko ohiko planteamendua eta behar horien norabide bakarreko lanketa hautsi nahi izan da eta oso garrantzitsutzat jo da alor desberdinetatik lanketak ezartzea, gizarte bazterketa egoerek eta gizarte inklusioaren egoerek lanketa konplexuagoa eta multidimentsionala behar dutela uste baita. Hori dela eta lan ildoak ezarri dira eta erakundeekin lankidetzan zein koordinazio ildoak ireki dira, nahiz eta erakunde horiek ez dituzten zuzenean egiten jarduketak gizarte inklusioaren munduan, baina badituzte egoeraren lanketa integrala behar duten pertsonak.

Helburu horrekin jarduketak hauek egin dira:

##### **14. Egoera pertsonal, familia egoera eta gizarte egoera zailean dauden gazteak helduen bizitzara igarotzea.**

Programa bat diseinatu da eta, horren bidez, era berritzailean landu ahal izango da, eta, horrela, haien egoeretara egokituagoa dagoen prestakuntzara eta enplegura orientatutako prozesu bat ere lortuko da.

##### **15. Uhin Labur programa**

Kalexka elkartearekin lankidetzan, zerbitzuko gizarte laguntza espezializatuaren programan arreta eman zaien gazteak hezkuntza alorrera gertura daitezten, berriz ere, programa espezifikoen bidez baina hezkuntza ingurune normalizatuetan.

## **16. Programa pilotu bat lantzea EHUekin lankidetzan**

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Haur eta Nerabeak Babesteko sistemako egoitza baliabidetakoak diren ikasleek unibertsitatean arrakasta akademikoa izateko baldintzak indartu daitezten.

## **17. Donostialdean egoitza eskusioan behar soziosanitarioak lantzeko lanaren hasiera**

Erakunde arteko koordinazio handiagoaren beharrari erantzun zaio baliabide espezializatuagoen bidez, egoitza bazterketan dauden pertsonentzako zentron bidez, ingurune irekian esku hartzeko programaren bidez gizarte eskusio larria eta gaixotasun mentala eta/edo patologia bikoitza duten kasuetarako.

## **18. Elkarbizitza helburu**

**Elkarbizitza dibertsitatea** proiektu horren bidez landu da, Ertzaintzarekin lankidetzan eta Haurrak eta Nerabeak Babesteko Zerbitzuarekin batera. Proiektu honen bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren tuteratzapeko gazteetan eta gizarteratzeko baliabideetan arreta ematen zaien gazteetan erradikalismo islamikoa prebenitu nahi da.

## **19. Prestakuntza-enplegu sare programa Debabarrenean eta Debagoienean bazterketa egoeran dauden pertsonentzat**

Eta ikuspegi hezitzaileago batetik, **enplegu sare bat diseinatu eta garatu da arrisku edo bazterketa egoeran dauden helduekin kohesionatua, baldin eta kalitatezko ibilbide inklusiboak bermatzen badituzte.** izeneko programa da. Horren helburua da pertsona hauen beharrak detektatzea erantzun egoki bat doitzeko prestakuntza eta enplegu prozesuetan, kolektiboari erantzuna ematen dioten hainbat baliabide eta sistemak eta prestakuntza ezagutzea.

## 20. Putzuberri

Proiektu horren baitan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Hizkuntza Berdintasunerako Zuzendaritzarekin batera, zerbitzuaren hizkuntza politikaren urteko ebaluazioa egin da eta, era berean, zentro eta programa guztietan gaztelania-euskara hiztegiak banatu dira, baita beste hizkuntza batzuetakoak ere, komunikaziorako oinarrizko jarraibideak emanez, euskara sustatzeko gizarte inklusioaren ikuspegitik.

## 5. HELBURUA. Herritarrekin Gipuzkoako gizarte inklusioaren inguruko komunikazio eta sentsibilizazio lana egitea

Elkar EKIN planaren baitan funtsezkotzat jotzen den alderdi bat da gizarte inklusioa eta gizarte bazterketa egoerei buruzko ezagutza hedatzea. Hori dela eta, maila honetan lan ildo espezifiko bat garatu nahi izan da.

### 21. Komunikazio plan bat diseinatu eta martxan jartzea

Plan hori garatuta, helburua da gizartea sentsibilizatzea inklusioaren problematikaren inguruan eta ildo horren garapenean aurrera egiteko aukera ematen duen corpus teoriko eta zientifiko bat sortzea.

Komunikabideetako argitalpenen bidez, gauzatutako hainbat ekintzekin, ikastaro eta jardunaldiak eginda eta artikulu zientifikoak argitaratuta herritarren sektore handi batera iritsi gara.

Hemen aurkezten diren datuek 2016-2017 aldian Elkar EKIN Plana garatzean egindako jarduera batzuk laburtzen dituzte.




**680**

Enplegagarritasun proiektuetako parte hartzaile berriak



**26**

Topaketak lan esparru kolaboratiboan tokiko eta gizarte erakundeekin



**247**

Planean parte hartu duten profesionalak



**245**

Kontratu berriak



**125**

Egoitza zentroak eta eguneko zerbitzuak



**128**

Inklusio prozesuei lotutako laguntza ekonomikoen onuradunak



**1.323**

Programa eta proiektuetako



**116**

Balorazio eskaerak gizarte



**% 1,96**

Gizarte bazterketa larriaren

parte hartzaileak



**% 23,56**

Gizarte bazterketa  
neurritsuaren irizpena

bazterketa baloratzeko tresna  
teknikoarekin (ITVES)



**% 43,14**

Gizarte bazterketa arinaren  
irizpena

irizpena



**% 11,76**

Bazterketa arriskuaren  
irizpena



**2.960**

Elkar EKIN Planeko parte hartzaileak



**2.015.254**

Elkar EKIN Planean inbertitutako  
aurrekontua



## 2. 2017-2018ko Ekintza Plana.

Dokumentu honek nabarmendu egiten ditu 2017-2018 eperako deskribatutako helburuei dagokienez gauzatuko diren ekintza garrantzitsuenetako batzuk.

Aipatu behar ezen, epe horretarako, birformulatu egin dela 2. helburua, gizarte bazterketako egoeran dauden pertsonen enplegarritasuna lortzera zuzenago bideratzearen.

### 1. HELBURUA. Gizarte bazterketako egoeran dauden pertsonentzako arreta hobetzea

Planaren lehen urtean abiatutako lanak oinarriak finkatu ditu, bigarren urte honetan zehar prestazioak eta zerbitzuak arreta emandako pertsonen premiei egokitzen segitu ahal izateko. Helburu horri jarraikiz, gizarte bazterketako egoeran dauden pertsonentzako arreta hobetzeko jorratuko diren jarduera ildo nagusiak planteatzen dira.

#### 1. Gizarte bazterketaren balorazio eta orientazio zerbitzua zabaltzeko prozesuaren jarraipena eta ebaluazioa

Beste zerbitzu eta prestazio batzuk eskatzen dituzten pertsona artatuen balorazioaren aplikazioaren ezarpen progresiboa, eskatzaile guztien balorazioa lortu ahal izatearren.

#### 2. Itunpeko erakundeekiko sare lana sistematizatzea

Erakunde laguntzaileekin garatzen ari den elkarlan eta sare lanerako dinamikarekin jarraituko da.

#### 3. Bazterketa egoeran dauden gaixotasun mentaldun pertsonen arreta premiei erantzuteko arreta baliabideak diseinatzea

Oraindik ere, Planaren lan ildoetako bat bitartekoak egokitzea da, hau da, arreta ematen zaien pertsonen premia errealetara egokitzea. Lan ildo horien artean garrantzi bereziko da bazterketa egoeran dauden gaixotasun mentaldun pertsonen zuzendutako baliabide bat garatzea; izan ere, behar horri gaur egun ez zaio erantzun egokia ematen ari dauden bitartekoetatik, ez daudelako diseinatuta ez prestatuta horrelako profila duten pertsonentzat.

#### **4. Habitat proiektua: Lurraldera zabaltzea eta horren ebaluazio etengabea, parte hartzen duten udalekiko elkarlanean**

Bigarren urte honetan lurraldean zehar hedatzea bilatzen da, 5 plaza gehiago zabalduz horretarako. Horretarako udal batzuekin egingo da lan, lurraldeko zenbait eremutara iristea lortzeko; era berean, proiektuaren eboluzioa analizatzen eta aztertzen ari da, bai maila kuantitatiboan proiektuaren alderdi esperimentalagatik, bai alderdi kualitatiboan kasuen eboluzioagatik.

#### **5. Arreta sarea pixkanaka zabaltzea**

Gizarte ahuleziako egoeran dauden pertsonen arreta emateko sarearen barnean, egoitza zentroetan eta eguneko zentroetan 30 plaza berri irekitzea aurreikusi da.

#### **6. Indarkeria matxistaren biktimen emakumeen babes eta balorazio osorako berehalako arreta zentroa zabaltzea**

Sarea zabaltzen segitzeko eta egokienak zaizkien baliabideak ez dauzkaten profilei arreta ematen joateko, 2017-2018ko ikasturtean zehar indarkeria matxistaren biktimen emakumeentzako arreta zentro bat diseinatzea eta irekitzea proiektatu da; zentro horretatik berehalako arreta emango zaie, dituzten premietarako arreta osoarekin batera.

## **2. HELBURUA: Enplegagarritasunerako aukerak sortzea gizarte ahuleziako egoeran dauden pertsonentzat**

### **7. Enplegagarritasun, laneratze eta gizarteratzera zuzendutako Gipuzkoa 4.0 Estrategia bultzatzea, gizarte kohesiora begira, 2017-2020 eperako**

- ✓ **Laneratze eta gizarteratzera zuzendutako estrategia bat diseinatzea eta maila instituzionalean adostea, epe ertainean, 2017-2020 epera begira.**
- ✓ **Desgaitasuna edota gaixotasun mental larria duten edota bazterketa egoeran dauden pertsonentzako zerbitzu okupazionalen eskaintza zabaltzea eta aniztea.**
- ✓ **Programen lurralde mailako estaldura bermatzea eta udal eta eskualde garapenerako agentziekiko koordinazio eta bideratze kanalak sortzea, pertsonak gizarteratzeko bideetan txertatuz baliabide horiek.**
- ✓ **Gizarteko beste eragile batzuekiko lankidetzak akordioak zabaltzea, enplegu inklusiboa sortzeko eta sustatzeko: Katea Legaiarekiko akordioa lan-hobiak eta merkatu berriak kokatzeko eta garatzeko, betiere desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzeko eta laneratzeko aukera egokiak lortu ahal izan ditzaten.**

### **8. Laneratzeko enpresak eskualde mailan zabaltzen hastea**

Azterketa-diagnostikoa egingo da, Lurraldean laneratzeko enpresak zabaltzeko dauden aukerak zein diren argitzeko.

### **3. HELBURUA. Kohesio eta aktibazio inklusiborako proiektuak sustatzea eta bultzatzea**

#### **9. Boluntariotzak eta hirugarren sektoreak gizarteratze prozesuen arrakastan duten eginkizunaren gaineko gogoeta egitea**

Hirugarren sektorearekiko eta boluntariotzarekiko lankidetzaren formulen barnean, aztertu egingo da gizarte ekimenak gizarteratze prozesuen arrakastan duen eginkizuna.

#### **10. Aktibazio inklusiboa, aisia, kulturen eta gizalegezko partaidetzan eta komunitate partaidetzan oinarritutako tresnen bidez**

Gizarte inklusiboagoa bilatzeko prozesuan, aisia, kultura eta partaidetza elementu erraztaile jotzen dira; horregatik, 2017-2018ko ikasturtean zehar zenbait proiektu sustatu nahi dira, honakoak:

- ✓ **Elkar-Ekinez**

Jarraitasuna emango zaio Emaus Fundazioarekiko Elkar EKINEZ proiektuari, hots, Gipuzkoako gizarte kohesiorako topaketa laborategiei, eta horrek aukera emango du Gipuzkoan gizarte inklusiboa eraikitzen segitzeko, agenteen partaidetza aktiboa jorratuta betiere, ikuspegi integralaz eta eskubideen bidetik.

- ✓ **Analisi komunitariorako eta inklusioaren planifikaziorako eredu bat definitzea toki eta eskualde esparruan**

#### **11. GazteON-SareLAN proiektua**

GazteON-SareLAN proiektua martxan jartzea, heldu bizitzarako trantsiziora begirako gizarte eta lan arloko prozesu integralak jorratzeko. Gizarte desabantaila eta zailtasuneko egoeran dauden gazteei zuzendua, intentsibo eta komunitarioa, horien gizarteratzea modu eraginkor eta kohesiozkoago batez bilatzeko.

## **12. EHUrekiko lankidetzaren ikerkuntza proiektuak garatzeko: osasun mentalari buruzko tesia**

2017-2018ko ikasturtean zehar jarraitu egingo du Planaren lehen urtean lantzen hasi den “Gizarte bazterketa eta nahasmendu mentalekin duen erlazioa” gaiari buruzko tesirako elkarlanak. Espero da tesi horren emaitzek datu interesgarriak eskaintzea osasun mentalaren eta gizarte bazterketaren arteko konfluentzia eta dikotomiari buruz.

## **4. HELBURUA. Gizarte babeseko beste sistema batzuekiko koordinazioa sendotzea**

Gizarte bazterketako egoeren dimentsio aniztasunak ezinbesteko egiten du gizarte babeseko beste sistema batzuekiko koordinazioa sendotzen segitzea. Horretarako, beste esparru batzuetako erakundeekin elkarrekiko plangintza sustatuko da, hain zuzen begirada transbertsala lortu eta, horren bidez, gizarteratze prozesuen arrakastan eragitearren.

Ilido horretatik, ondoko proiektu eta ekintzak martxan jartzea dago aurreikusita:

### **13. Gizarte eta lan arloa. Lanbide: lankidetzaren proiektu pilotua**

### **14. Haurrak eta Nerabeak. Babesgabeziari eta bazterketari aurre egiteko prebentzio programak**

### **15. Ogasuna. Gizarteratzearen esparruan zerga sistema sustatzera bideratutako neurriak aztertzea**

### **16. Gipuzkoan emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko Aurre! Foru Plana**

### **17. Etxebizitza. Eusko Jaurlaritzak etxebizitza bazterketari aurre egiteko duen estrategiarekiko elkarlana**

**18. Kultur aniztasuna. Elkarbizitza Helburu proiektua, erradikalizazioaren prebentziora zuzendua**

**19. Hezkuntza/Prestakuntza. Lankidetzaren protokoloa ezartzea: Arrakasta programa**

**20. Hizkuntza berdintasuna. Euskara sustatzea gizarteratze bidean laguntzeko: Putzuberrri**

**5. HELBURUA. Herritarrekin Gipuzkoako gizarteratzearen inguruko komunikazio eta sentsibilizazio lana egitea**

**21. Komunikazio estrategia zabaltzea. Sentsibilizazioa.**